

Noqua!!

H A M A B O S K A R A

2001eko uztailaren 13a VI.urtea

Usurbil, 117. zenbakia



Kamioientzat aparkaleku
erraldoia Zubietan

SETABU TAILERRAK, S.M.
ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA



- ✕ SOLDADURA
- ✕ BURDINEZKO ATEAK
- ✕ BURDIN SAREAK
- ✕ PLANOTIK EGINDAKO
- PIEZAK

**Eskatu aurrekontua
konpromezurik gabe**

Ugarte industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

TELF: 943 36 08 48
FAXA: 943 37 24 67

BERANTZ AKADEMIA

OPORRETAN ZABALIK

Zure kurtsoa ondo bukatu duzula?

*Ba, zorionak! Hala ere, udaran
gehiago sakondu nahi baduzu,
gurean baduzu aukera!*

Zuk
aukeratuko
duzu ikasteko
martxa!



San Esteban kalea, 14 Telf; 943 37 32 95



TXIMINIA ALTZARIAK



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

**Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia**

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Txerrimunik ordainetan



Aupa **Maialen!** Zorionak, lizentziatura lortu duzu eta! Oporrak ondo pasa, merezi duzu eta. Muxu haundi bat aita, ama, Eli, Igor eta gai-nontzeko famili guztia-aren partez.



Aupa "rubia"! Aurten zure egunean ez naiz ahaztu, e? Ondo pasa zure 23. urtebe-tetzean, farra haundiegirik egin gabe e! Muxu haundi bat.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota titu-luren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tar-te hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: uztailak 19

Ekaritzeko azken eguna: uztailak 12

Jaiotzak

Ilargi Harto Flores

2001-05-13

Kaleberri

Jone Alduntzin Alegria

2001-05-10

Kaleberri

Alain Ramos Cobo

2001-05-21

Muna Lurra

Ekhine Balerdi Goitia

2001-05-18

Usasku baserria

Julen Hernandez Gonzalez

2001-05-26

San Esteban

Nahia Marcos Huici

2001-06-10

Kaleberri

Hildakoak



2001-07-02
Antonio Galvez Calvo
91 urte
Atxegalde



2001-07-05
Joxe Izeta Olozaga
76 urte
Kalezar

Eusko Tren-en udako autobus ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
07.40	08.05	08.25	07.15	07.35	08.00
08.00	08.25	08.35**	07.45	08.05	08.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
08.40	09.05	09.25	08.15	08.35	09.00
09.00	09.30	09.40 *	08.45	09.05	09.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
09.40	10.05	10.25	09.20**	09.30	10.00
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
10.40	11.05	11.25	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.20*	10.30	11.00
11.40	12.05	12.25	10.45	11.05	11.30
12.00	12.25	12.35**	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
12.40	13.05	13.25	11.45	12.05	12.30
13.00	13.30	13.40 *	12.45	13.05	13.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
13.40	14.05	14.25	13.20**	13.30	13.55
14.00	14.30	14.40**	13.45	14.05	14.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
14.40	15.05	15.25	14.20*	14.30	14.55
15.00	15.25	15.40*	14.45	15.05	15.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
15.40	16.05	16.25	15.20**	15.30	15.55
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
16.40	17.05	17.25	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.20*	16.30	16.55
17.40	18.05	18.25	16.45	17.05	16.55
18.00	18.30	18.40*	16.45	17.05	18.30
18.30	18.55	19.15	17.45	18.05	18.30
18.40	19.05	19.25	17.45	18.05	18.30
19.00	19.25	19.35**	18.45	19.05	19.30
19.30	19.55	20.15	18.45	19.05	19.30
19.40	20.05	20.25	19.20*	19.30	19.55
20.00	20.30	20.40*	19.45	20.05	20.30
20.30	20.55	21.15	19.45	20.05	20.30
21.00	21.25	21.45	20.45	21.05	21.30
21.30	21.55	22.15	21.15	21.25	21.55
22.15	22.45	23.05	21.45	22.05	22.30
22.30	22.55	23.15	23.15	23.25	23.35
00.00	00.25	00.45	00.15	00.25	00.35
01.00	01.25	02.45	01.15	01.25	01.35
02.00	02.25	02.45	02.15	02.25	02.35
03.00	03.25	03.45	04.15	04.25	04.35
04.00	04.25	04.45	05.15	05.25	05.35
05.00	05.25	05.45			
06.00	06.25	06.45			

*Orioraino **Aiaraino

■ Asteburutan

*Orietik

**Aiatik

■ Asteburutan

Bai, esan?

• Udala	37 19 51
• Udalizaingoa	36 11 12
• Obrak eta Zerbitzuak	37 01 48
• Anbulategia	36 20 13
• Udarregi ikastola	36 12 16
• Udarregi (Kalezar)	36 45 00
• Agerialde ikastetxea	36 38 95
• Oiarde kiroldegia	37 24 98
• Zumarte	37 15 94
• Etumeta	37 20 01
• Taxi geltokia	36 21 78
• D.Y.A.	46 46 22
• Ertzaintza	112
• Suhiltzaileak	112
• Larrialdiak	112
• Anbulantziak	112
• Posta Kutxa	
• Gure Pakea	37 32 28
• Gure Elkartea	37 17 51
• Arrate egoitza	36 63 40
• Eusko Tren	47 09 76
• Noaua! aldizkaria	36 03 21
• Bake epaitegia	37 23 36
• Oa farmazia	36 12 17
• Iturralde farmazia	36 33 95
• Zubietako Herri Batzarra	37 20 77
• Argindarra (Iberduero)	47 09 76

Eusko Tren-en udako tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.47	11.03	11.20	11.08	11.24	11.39
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17	15.33	15.50	15.38	15.54	16.09
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17	16.33	16.50	16.38	16.54	17.09
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17	17.33	17.50	17.38	17.54	18.09
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17	18.33	18.50	18.38	18.54	19.09
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17	19.33	19.50	19.38	19.54	20.09
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.17	20.33	20.50	20.38	20.54	21.09
20.47	21.03	21.20	21.08	21.24	21.39
21.47	22.03	22.20	22.08	22.24	22.39
			22.38	22.54	21.09

* Astegunetan bakarrik

* Astegunetan bakarrik

Zer irizten?



Argitaratzailea

Noaqua! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
E-mail: noaqua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaqua>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karnele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Elzendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbietta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga, Zaloa Arnaiz eta Ibon Beristain.

Dokumentazioa

Idola Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaqua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Noaqua! Kultur Elkarteko
jendaurreko
ordutegia:**

**10.00-14.00 / 16.00-20.00
astegunetan**



Santixabelak 2002

Niko Bengoetxea

Kultura zinegotzia

Urte berezia dirudi 2002ak, kapikua izateak aldatuko ote ditu gauzak, edo aldatuko ote gaitu? Ikusle pasibo izatetik, gure ipurdia astintzera igaroko ote gara? Gure jaiak edari manipulatu eta konbinatu hartzera mugatu behar al dira? Egitaraua horrelakoa balitz!

Txupinazoa jendez gainezka, denak alai, saltoka eta jaiak bizitzeko asmoz, dultzaina eta trikiti hotsez lagundurik, kale nagusia jendez beteta. Gauean kontzertu, diskoteka, eta Askatasuna plazan agarra-tuak, adin guztietakoentzat. Bestela esan ea nori ez zaion gustuko pertsona berezi horri goxo-goxo belarrira gauza politak esatea? Goizaldean, herriko gazteek beren bizitzan lehen aldiz egin duten baratzuri zopa dastaketa, eta giro beroak jarrai dezan, pattar txorrostadaz lagundurik, euskal sukaldaritza berritzailea ote? Eguna ondo hasteko soka-dantza, eta betiko hamaiketakoaren orde, herrian hain ugariak diren elkarte gastronomikoek antolatutako patata tortila txapelketa, epaimahaia: soka-dantza "ikusleak". Bazkalostean VI. Mus txapelketa, eta ondoren hilabete luzez entseiuak egiten aritu diren herriarren antzezlanak. Preso eta iheslari

ohien egunean, bertsolari bereziak izango ditugu ohol-tza gainean: Xomorro, Uribe, Xabier, Seguro, ... eta dena herriarren eguneroko borrokari esker. Igandean Euskal Herriko eguna, goizean Urdiñarbe herriarekin ahizpakidetzatza, bai instituzio mailakoa, bai herri mailakoa. Hamaiketako udalaren bizkar. Ondoren Euskal Herriko herrialde guztietatik etorritako dantza ikuskizuna. Gauean herriarren arteko dantza maratona, ... Txoznetan herriko DJak musika pintxatzen.

Goizean goiz, diana. Ondoren kuadrillen arteko olinpiadak: katxi jaurtiketa, makailua pil-pilean, eta moztar lehia-keta. Arratsaldean saltsa: Kubako eritmorik beroenak estriptis inprobisatu eta guzti. Garai bateko kaltzontzillo eta kulero karreren oroimenez, tanga ezin dotoreagoak ikusgai: txoznetako tanga iraultzaileak oso merke salgai. Gauean, maskotaren erreketatza, 2002ko gaia zein izan den: Pasibitatea. Akaso proposatu den egitaraua ez da gustukoa izan, garestia, zenbat euro? Edo zenbat ero? Edo zenbatero, zenbat urtero horrelako jaiak? Badakizu, gustukoa ez baduzu, Jai Batzordera azal zaitez zure ekarpena eta lanerako eta festarako gogoak adieraztera.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herra!

“Proyecto de mejora y supresión de curvas peligrosas en la carretera local de Zubieteta”

Horrelako izenburua du Zubietako errepidean zenbait zatitan egiten ari diren obren proiektuak. Lehendabizi Amiriko errebueltak, gero Artzabalekoa, orain Etxetxokoa eta etorkizunean Lizarrakoa.

Herri Batzarreko zenbait kidek proiektua aurkeztu ziguten egunetik Etxetxo eta Lizarrako bihurguneen konponketan eragin zuzena izan dugun lursailen jabeak horren aurka azaldu gara erabat. Zubietako bideak duen arazoa zati batzuetan bakarrik errepidea zabalduz ez da konponetzen, bere osotasunean zabalduta baizik, hasi Amerin eta Lasarten bukatuz (izan ere, Iruindik Artzabalekara dioan bidea beste herri-bidea ez baitute egokitu nahi Herri Batzarreko zenbait kidek). Guzti honen ondorioz sortzen dira arazoak, alegia, leku batzuetan bide zabala eta

askotan estua, inbutuak sortuz.

Urte batzuk pasa, eta Zubietako Herri Batzarreko zenbait kideekin ikamika franko izan eta gero, hauek zenbait lur espropiatzeraino iritsi dira, “por cojones” errebueltak famatu hauek egiteko.

Etxetxoko errebueltak zabaltzen ari ziren bitartean, kaltetuok ez dugu Herri Batzarreko kiderik ikusi ere egin obrak burutzen zituzten bitartean, eta askotan langileek zenbait kasutan zer egin behar zuten galdetzen ziguten.

Beraz, iritsi da bidea asfaltatzeko garaia, eta langileei soberan zuten materialarekin Etxetxo baserriko ataria asfaltatu behar al duten galdetzen zaienean leku horretan asfaltorik ez dioala esan, eta ezezkoa da erantzuna. Hau esan eta gero, obrarekin zerikusirik ez duen Irubieta baserrira dioan bidean bota

zuten Etxetxoko ataria hiru aldiz asfaltatzeko lukeen soberakina.

Zenbat aldiz egin ote dugu topo Etxetxoko atarian autobus, kamioi edo eta edozein ibilgailurekin orain horrelako burla edo iseka egiteko? Obrak jasan eta gero kaltetuak izan diren lurjabeek ez al dute honetan zerikusirik izan ez duten jabeek baino eskubide gehiago?

Sanjuan gaueko ordu txikietan Artzabalekako bihurgune berrituan auto batek istripua izan eta errekarara joan zen zuzen-zuzen. Suhiltzaileek eta anbulantzia batek etorri behar izan zuten. Errebueltak hau berritu ondoren gertatzen den bigarren istripua da hau. Hau al da proiektuak bere izenburuan dioen bezala errebueltak hobetu eta ezabatzea?

Iñaki Aranburu Izagirre

Danborradari begirune gutxi

Idatzi hau herriko zinegotziei zuzenduta dago. Izan ere, Santixabelak pasa dira, baina danborradan parte hartu genuenok ez gara oso gustura gelditu. Bi hilabete egin genituen entsaiatzen, gustura gainera, baina azkenean lan haundia bihurtzen da.

Santixabel bezperan gertatutakoari dagokionez begirune falta nabarmena somatu genuen. Aurten ez da txupinazorik egon, frontoian eserlekurik ez zegoen eta gainera, argirik gabe jo behar izan genuen. Hori egiten diguten bigarren urtea da dagoeneko, eta denoi gustatzen zaigu begirune pixka bat izatea. Gainera, arduradunak bazekien guk gauzak nola nahi genituen. Beraz...

Danborradako partaideak



**RAMON
BARCENILLA**

. Pikor- pintura eta
gotele lanak
. Papereztatze-lanak
. Pintura-lanak oro har

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
MOBILA: 629 46 09 66

WITZANGA

HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater
konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17

Euskaral presoak etxera!



**SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA**

10su

Ugaldea poligonoa 36 - 2^a Esk
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta



Zuhaitzek ez dute errurik!

Auzoko Ibai Ondo Elkartea ixteko ahaleginek ez dute etenik. Badirudi auzo honetan guztia balio duela elkarte honen aurka joateko.

Oraindik ziurra ez izan arren, elkartearen aurrean dagoen zuhaitzetako bati pozoia bota diotela dirudi. Izan ere, enboreko azala belztuta baitago eta hostoak zimurtuta. Azal zati batzuk hartu dituzte aztertzerak eramateko bota diotena zer izan daitekeen jakiteko eta pozoia edo azido horrek izan ditzazkeen ondorioak zeintzuk diren ezagutu ahal izateko.

Gainera, ez da zuhaitz honi zerbait botatzen dioten lehen aldia. Iaz ere zerbait bota zio-



ten, oraindik ere zuhaitzak orduko arrasto nabarmenak baititu.

Azterketen emaitzak jakin bitartean, zuhaitza bizirik mantendu ahal izateko eguneroko zainketa eskatzen du. Egutero ordu erdiz ura bota behar zaio pozoia garbitu ahal izateko.

Oso zaila izango da erruduna aurkitzea, hala eta guztiz ere nik honako hau esan nahi diot: elkartearen aurrean dagoen mahaia eta zuhaitzi eder hori toki publikoa dela eta zuhaitza bera kaltetzeaz gain, guztioi kaltetzen diguzula.

Azken aholku bat: elkartearen aurka jo nahi baduzue, beste bide batzuk aukeratu. Izan ere, zuhaitzek ez baitute errurik.

URDAIAGA

Eider Jauregi



Jaien usaina goitik behera

Urteak joan urteak etorri aurten ere auzoko jaien atarian gaudenez, Jai Batzordeko kide garenok buru-belarri dihardugu jaiak antolatzen. Urtero bezala, jai "mundialak" antolatzen ari gara eta aurten goan, beste urteetan bezala, izugarrizko arrakasta izatea espero dugu.

Nahiz eta oraindik festetako programa kaleratu ez, aurrerapen txiki bat emateko moduan naiz: Kuba aldetik saltsa bero-beroa ekarriko digu Sanestebanera "Fuerza Latina" taldeak. Hau hasiera baino ez da, guztiguztia ez baitizuet orain kontatuko. Festa gosea pizteko nahi-

koa izango da ziu-raski, beraz, bada-kizue.

Jaien ingurutik irten gabe, Jai Batzordeko "beternoek" azken urtea dute aurtengoan festak antolatze lanetan. Honegatik, lehenik eta behin egindako lanagatik eskerrak eman behar-rean gaude guztiok, azken urte luze hauetan beti hor aritu baitira Sanestebanen alde jo-ta ke lanean. Eta bestetik, hauen hutsunea bete eta lane-rako prest dauden guztiei Jai



Batzordean parte hartzeko gonbitea luzatu behar.

Besterik gabe, eta guztien gustuko jaiak izango direlakoan, Sanesteban alaiak pasa hitzazue Jai Batzordearen ize-nean.

KALEZAR

Joseba Pellejero



“Dios te salve”

Hemen gatoz gaurkoan
Here Kalezartik berriemaile.
Oraingoan San Juan suari
buruz hitz egin behar dizuet,
berandu izango ez delakoan.

Gu gaztetxoagoak ginenean
hor ibiltzen ginen Errebal-Txikiko
gurdia hartu eta, Josetxo buru
genuela, etxez etxe behar ez
ziren hamaika trasto biltzen
(sofa, aulki, ohe, mahai, armai-
ru, marko, ate, apal, egur
zahar...); garbiketa ederra
ematen genion auzo zaharrari,
baita gero txukun-txukun pilan
jarri ere. Gainera, beti sortzen
zen ika-mika, zein auzok egin
su handiena eta nongoak
iraun denbora gehien piztuta.

Jakina da nork irabazten zuen,
ezta?

Nire ustez, azken urte haue-
tan zeharo itsusitu da dena.
Kalezarko San Juan sua beha-
rrean herriko zabor-
tegia ematen du,
bai lekuak eta bai
su ematen diogun
egur pilak ere, herri-
ko zakar guztiak
bertan erretzen bai-
tira.

Nik, auzotarra nai-
zen aldetik eta gau
berezi honetan
jende mordoa ingu-
ratzen dela ikusita,
su ikusgarriago eta

goxoago bat egingo nuke.
Kalezarko beste lekuren bate-
an eta gure erara, gurdi eta
traktorez. Horra hor nire eta
beste zenbaiten iritzia. SAN
JUAN!



ATXEGALDE

Amagoia Mujika



Aurretik bazenuen abixua

Eta orain zer? Berriz ere nire
paranoia horietako bati
eutsi behar eta honezkero bat
baino gehiago ariko da pen-
tsatzen badatorrela berriz beti-
ko pelmada. Horietakoa baza-
ra utzi irakurtzeari. Ez nuke nahi
etsairik izan idazten ditudanen
ondorioz, ezta inor gogaitu
nahi ere.

Oraindik hor al zara? Gero ez
etorri niri txorradak idazten ditu-
dala esanaz, abixua bazenuen
aurrez. Berandu da, nik nahi
baino beranduago. Ordu mor-
doa daramat ordenagailu
aurrean eta apenas gelditzen
da irudimenik (lehendik baldin
bazen, behintzat) nire kazkagor
honetan. Hau askotan gerta-
tzen da gustukoan duzuna
lana bihurtzen duzunean.

Lehen gogoz eta ilusioz egiten
zenuena egunak joan eta egu-
nak etorri nekeza bihurtzen
dela. Hala ere, oraindik idazte-
ko grina izan badut, nahiz eta
idatzitakoak beti ez izan nik
nahi edo irakurleak merezi
bezain txukunak. (Hau teknika
bat da, lerro hauetaraino iritsi
zareten guztiak irabazteko tek-
nika bat. Badakizue, beste
edozerren faltan... guztia da
baliagarri. Barkatu nire ausar-
dia. Berriz ere teknika).

Inoiz baino denbora gehiago
egin dut auzoan azken asteo-
tan, Santixabelen aitzakian
lanik gabeko egun batzuk izan
baitituf. Hala ere, zerbait kon-
tatzen hasi nahi eta... burua
pisutsu, begiak neke eta beha-
tzak astun. Festa osteko gaiso-

tasun honek neka-neka egina
nauka.

Baina, nire buru aldrebestuan
bila eta bila ibili eta badut
auzoarekin zerikusia duen pen-
tsamendu bakanen bat. Festa-
tik bueltan, ordu txikietan maiz,
ikastola behealdeko pretila
solasaldi gozoen lekuko bilaka-
tu dela etorri zait gogora. Urte
guztian zehar burua altxaz
agurtzen diren auzotarrak luze
aritu dira harri hotzaren gaine-
an kontu kontari. Gustatu zait
irudia, ez hainbeste oraingo
kronika.

Oraindik lerro hauen artean
dabilen horietakoa bazara,
eskerrik asko, zuk bai meritua
paranoiak jasaten.(Berriz ere
teknika, posible ote?).

TXOKOALDE

Imanol Goenaga



Zaldiak eta errepideak

Beste behin ere auzoan mugimendua izan dugu. Hasteko zorionak Udalari edo Foru Aldundiari. Zubia konpondu behar zutela esan zuten, oinarriak indartu ere egin zituzten ia inor ohartu gabe, baina azkenean behingoz auzoko zubia asfaltatu dute; bazen garaia!

Bestalde, duela bi aste inguru zaldi talde bat azaldu zen Txokoaldeko erriberan, lehen tren geltokia zen parean hain zuzen ere. Bertakoek Andatza aldera bidali zituzten, baina hurrengo egunean berriz agertu omen ziren, eta auzoan bueltaka zebiltzanez auzoek Torreko

sarreran sartu zituzten. Udal-tzaingoari abisatu eta hauek nagusiak topatu ondoren Zizurkil aldera eraman zituzten, dirudienez nagusiak hangoak baitziren.

Bide eta errepideekin jarraituz, Galardi-azpi eta Laxao baserrien artean eta Fermindegi baserriaren gainean dagoen bihurtunean aspaldi hone-

tan istripuren bat izaten da astero. Horregatik, zerbait egiteko garaia izan daitekeela gogorarazi nahi genuke.



KALEBERRI

Ines Kamino



Aupa Ixabel!

Datorren urtera arte. Batzuentzat tamalez eta besteentzat zorionez, bukatu dira aurtengo Santixabelak.

Festen azken eguneko komentario asko bat zetozen: agian luze joan dira. Hamaika aje eta burukomin gainditu behar izan ditugu azken astean. Azkenengo gauetan dagoeneko jendea nekatuta atzematen zen, nahiz eta egunez jendea barra-barra ibili den. Astelehenean izandako pilota partidek eta mus txapelketak jende ugari mugitu zuen. Ulertzekoa da, Santixabel eguna izanik askok jai bazuen. Astear-

tean, berriz, Txosna Batzordeak antolatutako bola txapelketak jende mordoa erakarri zuen, antolatzaileek ere ez omen zuten espero halako partehartzea izatea.

Benetan polita izan zen. Batzuk zedozer bazekitenak eta beste asko ideia zipitzik gabe 50 lagun inguru animatu zen bolotan jokatzera. Agian aurretik izugarritzko afizioa piztu eta usurbildarrak hor ariko dira bola bota eta bota, nork daki. Txosna gunearen toki berria ere dotore geratu zen, nahiz eta guztiek ez berdin pentsatu, batez ere hor ingu-

ruan bizi direnak. Trapu zikinak gero ere aterako dira. Ondo eginak gogoratu eta gaizki eginak ahaztu. Gora Santixabel!



AGINAGA

Oskar Santamaria



Txakurren garbitegia Ezpaldi-Berrin

Azken egunotan apenas entzuten da besterik, Gureakek Intxaurreta bidean duen gasolindegia zerbitzu berria eskaintzen du: txakurra garbitzeko zerbitzua.

Lehendik makina bat usurbildar gerturatzen zen Aginaga aldera kotxea garbitzera, orain, berriz, txakurra garbitzeko aukera ere izango dute. Zerbitzu osoa da gasolindegia eskaintzen duena, garbiketa eta baita ilea lehortzea ere. Batzuek txantxetan eta besteek interesaturik, besterik ez dabil ahoz aho azkenaldi honetan.

500 pezetaren truke txakurra garbi garbi eta lirain etxeratze-ko aukera hau gure herrian

berria den arren, Gipuzkoan bada antzekorik. Gurea-kek berak Miramon inguruan duen gasolindegian duela hilabete batzuk jarri zen mar-txan aipatu zerbitzua.

Donostia aldeko txakurrak "finak" zirela bagenekien, orain gure herriko-en joera ikusi behar (txakurrena baino beren jabeena, noski). Egia esan ez da ideia txarra. Txakurra etxean dutenek garbi egotea nahi izaten dute eta garbi egoteak hamaika lan



ematen ditu. Beraz, aurrerantzean zerbitzu osoa eta erosoia izango da Aginagan. Hori bai, nahikoa xelebrea ere bada. Ikusiko da zer nolako harrera duen.

ZUBIETA

Alex Udabe



Badatozela Santioak!

Gurean laster festa nagusi izango da, datorren uztailaren 24tik 31 bitartean Santioak izango baitira Zubietan. Oraindik programa eskuar-tean ez dugun arren, izan dugu jaietan izango dugunaren zatitxo bat ezagutzeko aukera.

24ko arratsalde partean txalapartak eta buruhandiek abiatuko dute festa eta, ondoren, Eztanda taldearen doinuak izango dira entzungai. Santio egunez, uztailaren 25an, meza, hamaiketakoa eta soka-dantza izango dira goiz partean eta arratsaldean trikixita txapelketa. Gau partean bertso saio aparta izango da, Amets Arza-

Ilus, Mañukorta, Joxe Agirre eta Joxe Lizaso bertsolariekin eta ondoren Hernani aldetik trikiti doinuak ekarriko dituzte Itsaso eta Leirek. Uztailaren 26a oillas-ko biltzaileen eguna izango da. Egun guztian zehar herriko gazteek bere egingo dute jai giroa eta gau partean herri antzerkia izango da.

Uztailaren 27an umeei zuzendurikoa izango da jaiak. Goiz zein arratsalde partean jokoak izango dira eta arratsaldean ipuin-kontalaria. Gaueko orduak, berriz, Akelarre taldeak alaituko ditu. Uztailaren 28an Zubietako bi talde parez pare arituko dira futbolearen eta

gauean kontzertu itzela izango da Zama, Folkcore eta Asgarth taldeekin. Ondoren diskoteka izango da ordu txikiak arte.

29an artisau azoka izango da egun guztian zehar eta arratsalde partean sagardo probaketa eta danborrada. Gau partean, berriz, herri afaria. 30eko festa jubilatuentzat izango da, hala ere, gau parteko orduak bere egingo dituzte Sen, Etsaiak eta Izotz taldeek.

Zikero janak, errebote finalak eta herri-kirolek beteko dute aurtengo Santioetako azken eguna. Eta amaitzeko, Donostiako Bigira taldea.

Herriko merkataritzaren euskararen plangintza gauzatzeko ahaleginetan

Udalak herriko merkataritzan euskararen plangintza gauzatzeko deialdia plazaratu du dagoeneko. Plangintza hori gauzatzea da deialdiaren helburua, hau da, herriko merkatariek, euren zereginak euskaraz gauzatzera bideratuta dago egitasmo hau. Lehiaketa honetan parte hartu hartu nahi dutenek uztailaren 20a baino lehen aurkeztu beharko dituzte beren eskaerak.

Udalak 1996an herriko merkataritzako euskararen egoerari buruzko diagnosis egin zuen, eta ondoren, 1998an, plangintza burutu zuen. Plangintza hartako emaitzak 1999an plazaratu ziren eta herriko merkataritzan euskararen egoera zein zen ederki isladatzen zuen. Horren ondorioz, eta egindako plangintzaren ildoari helduz, herriko merkataritzan euskararen plangintza gauzatzeari ekin nahi dio udalak. Horretarako oinarriak onartu zituzten pasa den ekainaren 26an egin zuten udalbatzan.

Usurbilgo merkatariek, euren zereginak euskaraz gauzatzea da helburu nagusia. Ahozko erabilera, idazmena, irakurketa, zigiluak, errotuluak, publizitatea, poltsak, hornitzaileekin, bezeroekin, etab. euskara erabiltzea, alegia. Merkatal eta ostalaritzako egunerokotasunean ahalik eta gehien euskararen presentzia sustatzea,

bultzatzea eta burutzea da egitasmo honen helburuetako bat. Ondorioz, baita, euskarazko mintzamina, idazmena eta irakurketa hobetzen joatea, horretarako ikastaroak bultzatuz. Urrats eraginkorrak ematea da nora-bidearen ardatza: plangintza gauzatzea.

Herriko merkataritza eta ostalaritza arloan eragingo du plangintza gauzatzeak, hala ere, Urbil zentro komertziala egitasmo honetatik kanpo geldituko da.

Plangintza gauzatzeko proposamenak egiterakoan, proposamen zehatzak aurkeztu beharko dira. Interesatuena eskuera jarriko da egindako plangintzaren dokumentazioa, berau oinarritzat hartu beharko delarik gauzatze lana burutzeko.

Deialdi honetan esku hartzeko eta lan hau burutzeko baldintzak hauetxek dira:

- Usurbilgo merkataritzan euskararen plangintza gauzatzeari buruzko aurreproiektua aurkezteak.

- Aurreproiektua euskaraz aurkeztuko da.



- Lan hau plangintza gauzatzeko izango da.

- Lanak idazkaritzan aurkeztuko dira (kartazalean itxita) uztailak 20arte (hau barne).

- Lana egiteko epea: irailaren 1ean hasi eta abenduaren 14rako amaituta egon beharko du.

- Ordainketa:

- * lana hasterakoan: %50 (250.000 pta, BEZ barne)

- * lana amaitzean: %50 (250.000 pta, BEZ barne)

Lana taldea, bakarka, zein enpresarentzat izan liteke.

TABERNA-JATETXEA



ANTAXETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44

Xinkildegia

Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa,
hauren jantziak,
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behe,
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

JUANTXO
burdindegia
kale nagusia 10 Usurbil
37 00 08



Zubietako aparkaleku berria egitea onartu du Foru Aldundiak

Zubietan garraioaren hiria delakoa eraikitzeko bere oneritzia eman du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Bertan, kamioientzat 238 plazako aparkalekua jarriko da eta Bugati aldean, fruitu merkatuaren ondoan eraikiko dute. Donostiako plan orokorra aldatu ostean zortzi hilabeteren barruan hasiko dira eraikuntza lanak.

Horretarako 1.200 milioi pezeta bideratuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Koruko Aizarna bozeramailearen esanetan kamioiek errepide ondoko bazterbideetan eta hiri barruan ez aparkatzea lortu nahi da egitasmo honekin. "Hiri barruko aparkalekuetan arazo ugari sortzen dira. Bizilagunen kexa ugari jasotzen dira ibilgailu pisutsuek sortzen dituzten era gozpenen ondorioz, batez ere

goizean goiz motorrak pizten dituztenean".

Gipuzkoako errepideetan kamioi ugari ibiltzen da. Egunean 7.000 ibilgailu pisutsu baino gehiagok pasatzen dute muga eta 500 kamioi sartzen diren zaindutako bi aparkaleku besterik ez daude. Honela, hauek errepide ondoko bazterbideetan eta hiri eta herri barruan jarritako behin-behineko aparkalekuetan gelditu behar izaten dute kamioilariek.

Zubietako aparkaleku berri honek 164.669 metro karratuko zabaleraz izango du. Bertan 238 plaza izango dituen zaindutako aparkaleku bat egongo da eta horrez gain errepideko garraiora bideratutako merkantziak gorde ahal izateko biltokiak jaritzeko 16.258 metro karratu era biliko dira. Azkenik, hotel bat, jatetxe bat eta bulegoak ere eraikiko dituzte bertan.



Zubietako Santio jaiak



Santixabel jaiak amaituta festen usaina pixka batean ez da aldenduko gure artetik. Santioak izango dira lehendabizi eta Sanestebanak ondoren. Zubietan dagoeneko egitaraua prestatuta dute eta zenbait ekitalditarako prestatzen ere hasiak dira.

Uztailaren 6an hasi ziren danborradako entsaioak eta danborradan parte hartu nahi duten zubietar guztiei entsaioak ostiraletan arratsaldeko 20.00etan eskola txikian izango direla jakinarazi nahi du jaietako batzordeak.

Bestalde, aurten ere, azken urteetako ohiturari jarraituz, soka dantza izango da Santio egunean. Urtero ia dantzari berak izaten direnez, lehen aldiz parte hartu nahi duten zubietarrek ostiraletan arratsaldeko 19.00etan izango dute soka dantza entsaiatzeko aukera eskola txikian.



MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia
hemen aurkituko duzu

Udako moda berria zuretzat!

MERKEALDIAK!

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06



Igandetan ganba-ziri mundialak!

Joxe Luis Zumetaren lanak Nueva Yorken ikusgai datorren udaberrian

Joxe Luis Zumetaren pintura lanak hara eta hona dabilta azken hilabeteetan. Maiatzean, udalak eta Mihixe Pintura eskolak antolatuta, Udarregi zaharreko aretoan egon ziren ikusgai. Orain, Epelde&Mardaras galerian daude Goenaga eta Escuderoren margolanekin batera eta datorren urteko udaberrian Nueva Yorkera eramango dituzte.

Guggenheim museoak Euskal Herriko artistei aukera haundiegirik ematen ez diela eta, pasa den uztailaren 5ean Epelde&Mardaras galeria ireki zuten eraikuntza haundi horren parean. Bertan, besteak beste, Joxe Luis Zumeta margolari usurbildarraren lanak egongo dira ikusgai uda amaitsu bitartean. 75 metro karratu dituen lokal honetarako margolan

haundiak egiteari utzi eta paperean 20 marrazki egiteko eskatu zizkionten Zumetari.

Galeria honen jabeen egitasmoa, ordea, ez da erakusketa honekin amaitzen. Udaberrian Nueva Yorkera eramango dituzte usurbildarraren margolanak. Hauen esanetan Euskal Herrian margolari haundi eta onak daude eta atzerrian hauen lanak ikustea behar beharrezkoa da. Horregatik, Zumetaren lanak Nueva Yorken ikusi nahi dituztenentzat aste bateko bidaia antolatuko dute. "Chillidak eta



Oteizak itzalean utzi dituzte beste artista guztiak, baina Euskal Herrian atzerriera eraman daitezkeen artista asko daude. Euskal Gobernuak euskal artisten lanak kanpoan ikusi daitezkeen ahaleginak egiten dituztenei lagundu beharko lieke".

Senideak elkarteak eta herriko 21 taldek aurkeztutako mozioa onartu du udalak

Pasa den ekainaren 26an izandako udalbatzan Usurbilgo Senideak elkarteak aurkeztutako mozioa onartu zen. Horrez gain, hauek izan ziren Senidearen idatziarekin bat egin zuten taldeak: Gure Artera Bilgunea, U.G.A., LAB sindikatua, Sagardo Egunaren Lagunak, Herri Batasuna, Zubietako Herri Batzarra, Etumeta euskaltegia, Aginagako jai batzordea, Andatza mendi elkarte, Aitzaga, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Agi-

naga kirol elkarte, Noa! Kultur Elkarte, Ibai Ondo elkarte, Tabernarien elkarte, Mahaspildegik elkarte, Peña Pagola, Andatzpe, Trikitixa eskola, Arrate zaharren egoitza eta Intsumisio taldea.

Hona hemen bere onarpeneko Senideak aurkeztu zuen proposamen zehatza:

- Euskal Herrian bizi dugun gatazka, izaera politikoa duen gatazka dela aitortzen dugu.

- Arazo politikoen soluzioa, soilik politikoa izan daitekeenez, gatazka areagotu eta tenkatzeko baino balio ez duten neurri errepresibo guztiak amaitzea exijitzen dugu.

- Gatazka politikoa ondoz ondoz espetxean, exilioan edota deportazioan aurkitzen diren gizon eta emakumeak, Estatu-

to Politikoa zor zaien preso, exiliatu eta deportatu politikoak direla diogu.

- Euskal preso politiko guztiak berehala Euskalerriratu eta euskaldun orok Euskal Herrian libre bizitzeko duen eskubidea errespetatu dadila exijitzen dugu.

- Gatazkaren konponbide politikoa, demokratikoa eta nazionala gauzatzeko, elkarrizketa politikoa eta euskal herritar guztiok libreki geure etorkizuna erabaki ahal izateko eskubidea aldarrikatzen dugu, zeinen muga bakarra, euskaldunok adierazitako borondate libre izango den.

- Horrela, bazterketarik gabe, aukera politiko oro eta euskal eragile politiko eta sozial guztiak aintzakotzat hartzea ezinbestekoa dela diogu, egungo egoerari elkarrizketan oinarrituriko irtenbide demokratikoa eman ahal izateko.



Felix Aizpurua II. literatura lehiaketa

Pasa den ekainaren 28an banatu ziren Felix Aizpurua II. literatura lehiaketako sariak. Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoek parte hartu duten lehiaketa honek bi arlo izan ditu: prosa eta olerkia.

Prosa

DBH 3. eta 4. (14-16 urte)

1. saria: Miren Zarautz
2. saria: Ekiñe Olazola
3. saria: Iñaki De La Cruz

DBH 1. eta 2. (12-14 urte)

1. saria: Irati Portu
2. saria: Maialen Unanue
3. saria: Jokin Iartza

L.H. 6. (10-12 urte)

1. saria: Ekhi Arrieta
2. saria: Joxe Mari Zubimendi
3. saria: Maddi Galbete

L.H. 4. (8-10 urte)

1. saria: Aritz Aranburu
2. saria: Irati Lasarte
3. saria: Ane Gurrutxaga

Olerkia

DBH 3. eta 4. (14-16 urte)

1. saria: Iñaki De La Cruz
2. saria: Nerea Korta
3. saria: Julen Etxabe

DBH 1. eta 2. (12-14 urte)

1. saria: Unai Sarasola
2. saria: "Auskalo" ezizenekoa
3. saria: Maite Roteta

L.H. 5. eta 6. (10-12 urte)

2. saria: Maddi Galbete
3. saria: Joxe Mari Zubimendi

L.H. 3. eta 4. (8-10 urte)

1. saria: Eñaut Pagola
2. saria: Eneritz Olasagasti
3. saria: Jokin Irastorza



Txupinazoa eta ikurrinaren igoera ekainaren 28an arratsaldean izan baziren ere, herriko haurrek inork baino lehen ekin zioten festari. Goizean zirko tailerra eta haizezko gaztelu, zezen mekaniko eta antzekoekin gozatu ederra hartu zuten. Arratsaldean, berriz, txotxongiloak ikusi ondoren txokolatea jateko aukera izan zuten. Hori bai, etxera ez ziren esku hutsik joan, jostailuak, goxokiak eta beste hainbat gauza oparitu baitziren bertan.



Lehen Santixabel bezperan gauerdian egiten izen ikurrinaren igoera jaietako lehen egunean, ekainaren 28an, arratsaldez egitea zen aurten berritasunetako bat, eta egia esan, ez zuen arrakasta haundiegirik izan. Hala ere, Xabier Mikel Errekondo eta Joxe Antonio Altuna izan genituen udaletxeko balkoian ikurrina igo eta txupinazoa botatzen eta jaiak alaitasunez hasteko txanpain botilek ere tartetxo bat izan zuten Santixabel hasierako ekitaldian.

P A T R I

J A T E T X E A
Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

TXURRUT



TABERNA

Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalca, 1
Tel: 943 36 00 80

Kale Nagusia 13, 48940 USURBIL
Tlf. 943 37 33 40
943 37 09 13

LABE-GOXO

Tirri Tarra



Santixabel jaiei txupinazo ofiziala eman aurretik hainbat ekitaldi izan ziren herrian. Ekainaren 26an Artze anaiak eta Xiberoako abeslariak "Lüralde Zillarra" ikuskizuna eskaini zuten Udarregi ikastolako erdiko aretoan eta hurrengo egunean, berriz, Tirri Tarra fanfarre ezagunaren "Re+Fa" ikuskizuna ikusteko eta entzuteko aukera izan zen herriko frontoian.

Zikiro jana



Nahikoa zikiro izan zen joan den ekainaren 30ean herriko frontoian. Barrenak berotzeko salda beroa hartu, entsalada pixka bat jan eta... zikiroa nahi adina. Gero dultzaineroen doinuak entzun eta abesteko aukera izan zuten zikiro jane-
ra inguratu zuten guztiek. Ondoren "Euskal presoak Euskal Herrira" kirol taldearen herri kirol erakustaldia izan zen dema plazan.

Soka dantza



Iaz udaleko zinegotziek huts egin ondoren, soka dantza herritarrek egitearen tradizioa berriz berreskuratu da aurtengoan. Noaual Kultur Elkarte-ko kideak dantzari bihurtu ziren egun batez. Joxe Antonio Altuna alkateari Noaual aldizkari bat eskaini zioten lehendabizi eta ondoren soka dantza dantzatu zuten Joxe Martin Sagardia plazan bildu zen jendearen aurrean.

Bertsopaper lehiaketa



Bigarren urtez jarraian Kerman Errekondok irabazi du Santixabel bertsopaper lehiaketa. Kontu zaharrak bertsotan gaitzat hartuta 10 bertso osatu zituen "Iparragirre abila dela..." doinuak. 2. saria Imanol Zarautz "Troia" k eskuratu zuen "Bizitza bera istori zahar" izenburupean aurkeztu zuen bertso sortarekin eta Joxe Mari Arzalluzentzat izan zen hirugarren postua.

LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021



kafe berezia

San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

Oilaskobiltzaileak



Aze koadrila! Oilaskobiltzera joan eta ia oilaskorik gabe etorri zitzaizkigun ba! Baserriak krisian daudela? Bai horixe, ondorio horretara iritsi ziren behintzat Santixabeletan oilaskobiltzera joan zirenak. Arin arin eta fandango ugari dantzatu arren ez zuten oilaskoz betetako makila eramaten lan haundirik izan. Usadio zahar hau ere galtzeko bidean dela esan beharko. 17 lagun besterik ez ziren bildu (emakumezkoak nagusi!) eta Aginagako buelta egitea erabaki zuten, taldea bitan banatzea ezinezkoa baitzen (jende falta, noski). Hala ere, eguzkiaren indarrak ez zituen kikildu eta dantza ugari egin ondoren Askatasun plazako askaren inaugurazioa ez zen nolanahikoa izan.

Txoznak



Txoznen batzordeak ekitaldi ugari antolatu ditu aurtengo Santixabel jailetan. Saiheski jana, trikitilariak, Trapu Zaharrak antzerki taldea, Morau, gazte bazkaria... denetik izan da Askatasun plazan kokatuta zeuden lau txoznen inguruan. Mus txapelketan, adibidez, Iñaki Esnaola eta Antton Macuso izan ziren irabazleak. Goitibera laisterketan, berriz, Imanol Zarautz eta Arkaitz Portularrume izan ziren azkarrenak. Hala ere, jailetako azken egunean izan zen basurde harrapaketak sortu zuen ikusminik haundiena. Bertan, Imanol Zarautz eta Kepa Unanue izan ziren basurdea harrapatu eta bere kaxara sartzen denbora gutxien pasa zutenak.

Presoei omenaldia



Preso eta errefuxiatuen eguneko omenaldiko telefono delak ezustean harrapatu gintuen denoi. Izan ere, inork ez baikenuen espero Santixabeletan bete-betean sartuta geunden egun horretan hiru ordu laurdenez Ramon Uriberekin zuzeneko hizketalditxo bat izateko aukera izango genuenik. Herritar gutxi igo zen oholtza gainera Ramonekin hitz batzuk egitera, baina askok aitortu zuten bezala, herritarrak hitzik gabe geratu ziren. Une hunkigarriena Ramonen ama oholtza gainera igo zenean izan zen, denok malkoari ezin eutsirik baikenuden. Omenaldia herriko kaleak zeharkatu zituen manifestazioarekin, trikitiaren doinuez lagundurik, eman zitzaion amaiera.

Danborrada



Santixabel bezpera helduen eguna bazen ere, danborradak hartu zuen protagonismo nagusia. Txikienen txanda izan zen arratsaldean. Danborrak aurrean hartu eta gogoz ekin zioten udal-txe aurretik frontoirako bideari Tirri Tarra fanfarrearren laguntzaz. Hemen, berriz, ikuskizun polita eskaini zuten. Gauean helduek hartu zuten lekukoa. Ikuirinarene igoera eta txupinazorik gabe, bere horretan hasi zuten urteroko ibilbidea bukaeran herriko frontoira iritsi asmoz. Gazte nahiz helduek azken bi hilabetetan egindako entsaioetara joateak merezi izan duela erakutsi nahi izan zuten herritarren aurrean.

Senden eta Judo Team taldeak irabazle UGAren areto futbol txapelketan

Ez zen giro izan pasa den uztailaren 1ean frontoian jokatu ziren Usurbilgo Gazte Asanbladak antolatutako areto futbol txapelketako azken partidetan. Jende ugari bildu zen bertan, eta gogoz animatu zituzten azken bi partidak jokatu zituzten taldeak. 14 urtez azpikoetan Senden taldeak lortu zuen garaipena eta 14 urtez gorakoetan, berriz, Judo Team-ek.

Partidak Santixabel bezperan eta afalorduan izanda ere, jende ugari gerturatu zen frontoira UGAk antolatutako areto futbol txapelketako finalak ikustera. Txapelketa osoan zehar giro berezia sortu izan da frontoi inguruan eta azken bi partidetan ere jendeak ez zuen huts egin.

Txikietan, hau da 14 urtez azpikoetan, Senden taldeak

16-9 irabazi zien Benta tabernari. Maila honetan parte hartu duen talderik gazteenak ahal zuen guztia egin zuen, ikusleen laguntza ere izan zuten, baina ezin izan zuten ezer egin zaharragoen aurka. 14 urtez gorakoetan, berriz, Judo Team taldeak eskuratu zuen txapelketa partida parekatu batean Alperro taldeari 10-8 irabazi ondoren.



Telleriaren idi pareak nagusi idi deman



Pasa den uztailaren 1ean hiru idi parek indarrak neurtu zituzten herriko dema plazan. Telleriatarren idi pareak jardun zuen lehendabizi eta marka guztiak apurtu zituzten. Izan ere, 30 minututan 45 plaza eta 2 zinta egin zituzten eta dirudienez plaza honetako marka hobetzeaz gain beste bi idi pareek ezin izan zuten hobetu Telleriatarren marka. Ondoren dema plazara atera ziren Santueneko idiek 29 plaza egin zituzten denbora berean eta Egioletakoek 40 plaza egin bazituen ere bigarren postuarekin konformatu behar izan zuten.

Zendoia enea
Taberna

- ✓ Pintxoak
- ✓ Eguneko menuak
- ✓ Bokatak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Razioak, .

Kale Nagusia, 35 Telf; 943 36 25 60



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

Igor Alkortak irabazi zuen txoznetako I. Bola txapelketa

Txoznek antolatutako I. Bola txapelketak izugarrizko arrakasta izan zuen. Jende askok parte hartu zuen eta ikustera ere herritar ugari gerturatu zen bolatoki berrira. Azkenean Igor Alkorta izan zen irabazlea, lehenengo tiraldian Iñigo Arronarekin berdinketa izan ondoren brilla gehiago bota baitzituen bigarren tiraldian.

Bola botatzeko estilo eta truko ezberdinen erakustaldi bikaina ikusteko aukera izan zen pasa den uztailaren 3an herriko bolatoki berrian. Eskuan inoiz bola bat hartu

gabeak, zer egin behar zen ez zekitenak... jende ugari, 50 tiratzailer inguruk, parte hartu zuen txoznak antolatutako I. Bola txapelketan.

Bakoitzak lau aldiz bota behar izan zuen bola eta irabazlea erabakitzerako orduan Igor Alkortak eta Iñigo Arronaren artean berdinketa egon zenez (18na brilla bota zituzten) beste tiraldi bat egin behar



izan zuten berdinketa hausteko. Azkenean Igor Alkortak lortu zuen garaipena eta Iñigo Arrona gelditu zen bigarren.

Santixabeletako toka txapelketa



Urteroko ohiturari jarraituz Santixabel jaietan toka txapelketa jokatu zen dema plazan pasa den ekainaren 30ean. Bertan, gizonezkoetan Joxe Ramon San Sebastian izan

zen irabazlea (8) eta Antonio Guadix (6) gelditu zen bigarren postuan. Emakumezkoetan, berriz, Koro Azkuek (5) lortu zuen garaipena Maitere Alkorten (4) aurretik.

Santixabel judo txapelketa

Oiaro kiroldegian jokatu zen XIV. judo txapelketan Arabako bi talde eta Gipuzkoako 10 taldek parte hartu zuten eta bertan Usurbil Judo Taldea izan zen nagusi. Guztira 15 domina eskuratu zituzten, 47 puntu lortuaz.

Urrea: Irati Holgado (-30), Amaia Añorga (-47), Ainhoa Otxagabia (-52) eta Zuhaitz Liza-so (-52).

Zilarra: Aitor Arrillaga (-30), Ekiñe Zalakain (-34), Mirian Mitxelena (-38), Ane Rodriguez (-42), Elixabet Olaizola (-52) eta Haritz Holgado (-42)

Brontzea: Enara Urdangarin (-30), Maialen Heras (-34), Kristina Rodriguez (-47) eta Borja Pulido (-42).



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13



Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26

Komertzioetako kartoiaren gaikako bilketari buruzko sentsibilizazio kanpaina

San Markoseko Mankomunitateak komertzioetako kartoiaren gaikako bilketari buruzko sentsibilizazio kanpaina bati ekin dio mankomunitatea osatzen duten hamar udalerrietan. Lau informatzaile-hezitzaile herri horietako establezimendu guztietatik pasatzea da beren asmoa, eta uztailaren 16tik 20ra bitartean Usurbilen izango dira.

Espaloietan eta edukiontzien inguruan kaxak eta enbalajeak pilatuta uzteak sortzen dituen arazoak murrizteko komertzioetako kartoiaren gaikako bilketa eta birziklapena bultzatzea da kanpaina honen helburu nagusia. Horregatik, epe laburrean komertzioetako kartoi-bilketak haunditu nahian, establezimenduetako jabeak beraien partehartzearen garrantziaz kontzientziatu eta jarrera aldaketa bultzatzea lortu nahi da.

Horretarako, herriko merkataria eta ostalariekin harreman zuzena eta pertsonala izan dezaten lau informatzaile-hezitzaile herrian izango ditugu uztailaren 16tik 20ra bitartean. Informazio-orriak eskura banatzeaz gain, gaikako bilketako edukinontziak dauden



guneetan informazio seinaleak jarriko dira eta dokumentuak eramateko poltsak ere banatuko dira kanpaina gogora arazteko helburuarekin.

Izan ere, komertzioetako ia jarduera guztiek sortzen dituzte ontzi eta enbalajeetatik eratorritako kartoi hondakinak. San Markoseko mankomunitateak, berriz, kartoi honen bilketa zerbitzua egiteko bi bilketa modu ezberdin ditu eskualdeko komertzioaren errealitate ezberdinen arabera.

Komertzioen dentsitate haundiena dagoen zonaldean, hau da, Donostiako erdialdean egunero biltzen da astelehenetik ostiralera. Bilketa honetan, merkatariek kartoia

gertuen duten zabor-edukiontzien aldamenean utzi dezakete. Kartoi hori, lantalde berezi batek biltzen du gero, biltegira eraman, sailkatu eta zelulosa-lehengai modura birziklatzeko.

Mankomunitateko gainontzeko komertzioentzat "atez ateko" bilketa dago. Bertan, astean behin, bitan edo hirtan biltzen zaie sortzen duten kartoia. Erabat dohakoa den zerbitzu hau, horretarako izena eman duten komertzioei eskaintzen zaie. Gaue egun, 428 establezimenduk parte hartzen dute. 2000. urtean bi bilketa modu hauen bidez 1.638.469 Kg. kartoi bildu ziren, guztira bildutako kartoi eta paperaren %15,78 hain zuzen ere.

Etxeen izenekin keramikazko plakak jartzen



Paris-enea, Paris txiki, Kontzeju txikia... Kaleberrin etxeen izenekin keramikazko plakak jartzen hasi dira dagoeneko. Kaxkoan beren etxeen berezko izena jartzeko eskaera egin dutenak ez dira asko izan, eta Bustinzulo keramika taldeak egindako plaka jarri nahi izanez gero ez zaie denbora asko falta. Izan ere, auzoetakoen eskaerak gehiago direnez hauek jartzeari ekingo diote laister batean.

Olatz Altuna auzipetzeko eskaera egin du Enrike Molina fiskalak

Fiskalak Ekin auzian eta Joxemi Zumalabe Fundazioaren auzian 33 lagun auzipetzeko eskatu zuen pasa den uztailaren 3an kaleratutako txostenean. Horien artean dago urrian atxilotu zuten Olatz Altuna usurbildarra ere. Joxemi Zumalabe fundazioko beste kideekin batera desobedientzia zibila bultzatzea leporatzen dio fiskalak.

Espainiako Entzutegi Nazionalako fiskalak 216 orrialdeko txosten luzea egin du Baltasar Garzon epaileari helerazteko. Bertan, 18/98 sumarioaren barruan dauden bi atalekin, Ekin-ena eta desobedientzia zibilari lotutakoa, lotzen ditu zenbait pertsona. Batzuk auzipetzeko, beste batzuei inputatu gisa deklarazioa hartzeko



eta beste batzuk atxilotzeko eskatu du.

Noaualko juntakidea den Olatz Altuna eta Joxemi Zuma-

labe fundazioko kideak auzipetzeko, "desobedientzia zibila bultzatzeko proiektua" ETA-rena dela esatea da tesi nagusia. Honela, Olatz eta beste 30 auzipetuen kasuan erakunde armatuko kide izatea akusatuta eskatu du auzipetzea.

Olatz Altunaren esanetan gertatzen ari dena ez da normala. *"Fiskalak egin duen txosten honek Garzonen sumarioko oinarri berdinak ditu. Fiskal berak baldintzapean aske utzi gintuen gehienok eta orain berriz auziperatu nahi gaitu. Niri, adibidez, Garzonen aurrean deklaratu nuenean fiskalak kolaboratzaile izatea leporatzen zidatela esan zidan, eta orain fiskal berak erakunde armatuko kide izateaz akusatu nau".*

Bota Punttubako Egoitz Eizagirre txapeldun

Oriotarra izaki, 17 urte eta joan deneko bi urte hauetan Bota Punttuba bertso eskolan aritu dena, Euskal Herriko eskolarterko bertsolari txapelketako txapeldun berria dugu Mungian ospatutako finalaren ondoren. Herriko bertso eskolan bederrati urte daramatzaten Xabier Sukia eta Ibai Esoainen laguntzaz hasi zen bertsotan, ikastolako lehen urratsetan. Gero, animatu eta Bota Punttuba bertso eskolara etortzen hasi zen beste lau oriotarrekin batera. Beraz, herriko bertso eskola honetan oriotarrak dira nagusi.

Bestalde, 14 urtez azpiko mailan Añorgako Beñat Gaztelumendi izan zen garaile. 13 urteko mutiko honen ibilerak ere badu zer esanik Bota Pun-



ttuba bertso eskolarekin. Bere aita zortzi urtez etenik gabe herriko bertso eskolan dabil eta bere zaletasunari esker, bere bi semak ere bertsotan trebatzen hasi zituen Xabier Sukiak eta Ibai Esoainek daramaten Igeldoko bertso eskolan. Tarteka, Bota Punttuba

bertso eskolara etorri izan da eta guztiak txunditu izan ditu gazte honen etorriak. Bere hiztegi aberatsa, abesteko duen gaitasun paregabea eta erantzuteko duen erraztasuna dira bere dohairik preziatuenak. Aurtengo hau bere hirugarren txapela da.



**Agurtzane
Solaberrieta**



□ **Noaual Kultur
Elkarteko dinami-
zatzailea eta publi-
zista**

Ez gaitezen egoera honetara ohitu

Santixabeletako biharamu-
naren zama gainetik kendu
ezinean nenbilen asteazken
goizean eta prentsa irakurtzeko
batere gogorik ez nuen arren,
hara hor albistea! Haize berriak
dakartza Madril aldeko "justiziak",
tamalez, ez hain berriak euskaldu-
nontzat pentsatu nuen.

*"Ekin eta Zumalabe kasuetan 33
lagun auzipetzeko eta beste 9
inputatzeko eskatu du fiskalak",*
horixe zioen Euskaldunon Egunka-
riak bere Euskal Herria saileko
lehen albisteko titularrak. Eta
hurrengo albisteko titularrak, aldiz,
*"Egin auziko 22 lagunen eta Rei-
ren auzipetzea berretsi du Entzute-
giak"*. Begietako makarrak kendu
eta bi albisteak irakurtzen hasi nin-
tzen.

Ikusi ahal izan dugun bezala,
Egin egunkaria eta Egin irratia ixte-
arekin Garzon jaunak hasitako
prozesu bidegabean beste urrats
bat eman du Entzutegi Nazionale-
ko Penaleko Laugarren Salak:
Pepe Rei kazetariaren eta Egin
auziko beste 22 lagunen auzipe-
tzea berretsi du. Eta, aldi berean,
Ekinen eta Joxemi Zumalabe Fun-
dazioaren auzietan 33 kide auzi-
petzeko eta beste bederatzi inpu-
tatzeko eskatu du Entzutegi Nazio-
naleko fiskalak. Bai Egin auzian
eta bai Ekin eta Joxemi Zumalabe
auzietan, ETako kide edo lagun-
tzaile izatea leporatzen diete,
baina 18/98 sumarioko beste auzi
guztietan bezala, hori leporatzeko
argudioak batere oinarri juridikorik
gabeak dira. Eta, gainera, 216
orriko txostena kaleratu dute. Ezer
beririk?

Estatu demokratikoa eta zuzen-
bide estatua omen da estatu
espainiarra eta beren justizian
konfidantza izatea eskatzen dute.
ETAren amaitzeko bide bakarra
bide poliziala omen da eta justi-
ziari bere bidea egiten utzi behar
omen zaio. Eta bien bitartean,
abertzale eta euskaldun bezala
bizi nahi dugun oro auziperatzeko

eta kriminalizatzeko saiakerak
etengabe aurrera darraite.

Hala ere, badirudi hau guztia
jada ez dela berria eta beste
"garzonada" bat baino ez dela.
"Orain ere zerbaitetan ari da",
pentsatzen dugu. Tamalez, euskal
gizartea, egoera honetara ohitzen
ari da. Egutero funts juridikorik
gabeko eta irizpide politikoen ara-
berako auto eta txosten ugari
kaleratzen ari dira eta, bitartean,
euskaldun asko milioi askotako
fidantzei eta urte askotako espe-
txe zigorrei aurre egin beharrean
aurkitzen dira. Eta hau gutxi izan-
go balitz, euskaldunoi buruz guztia
dakiten kontu kontari ibiltzen diren
espainiar aldeko komunikabideek
ere "terrorista arriskutsutzat" aur-
kezten dizkigute inolako lotasrik
gabe.

Noaual Kultur Elkarteko kide nai-
zen aldetik, eta euskalgintzan eta
kulturgintzan egutero lanean ari
naizenez, egoera hau salatu nahi
dut. 33 horien artean **Olatz Altuna**
usurbildarra eta Noauako juntaki-
dea auzipetzeko eskatu du fiska-
lak edota auskalo nork. Orain Ola-
tzi tokatu zaio, baina hurrengo
auskalo nor izan daitekeen. Agian
bertso bat kantatzea edo trikitixa
jotzea ETako kide edo kolabora-
tzaile izatea ere izan daiteke
espainiar justiziarentzat. Euskal
kutsua duen edozerren aurkako
estrategiak ez du mugarik. Ikusi
dugun bezala, estrategia hori ez
doa soilik ezker abertzalearen
aurka, baizik eta nazio eraikuntzan
egutero lanean dabilen gizon-
emakume euskaldunen eta nazio-
estrategia osoaren aurka baizik.

Agian, askok nere artikulua hau
irakurtzean pentsatuko duzue ez
dudala ezer beririk esaten. Baina,
aitortu behar dut, honek guztiak
sutan jarri nau eta ezin gara jada
isilik geratu ezta geldirik geratu
ere. Egutero lanean aurrera
egitea da gure erantzunik onena.

Animo Olatz eta eutsi goiari!

Lehiaketa



Egilea: Dominguez argazkiak

Zein dira koadrila honetan agertzen direnen izen-abizenak?

Talde honetan dauden
izen-abizen guztiak asmatzen
dituztenen artean Patri
tabernan bi pertsonentzat
afaria zozketatuko dugu



Udal fototeka

Irabazlea

**Itziar
Arrizabalaga**

Saria

Bordatxo Tabernan bi
lagunentzat afaia

**NOAUA ALDIZKARIKO IRAKURLEOI:
EUSKALDUNON EGUNKARIAK GONBIDATZEN ZAITUZTE**

munduko musiken euskal herriko 2. jaialdia

zintzarria 

uztailak 20 • 21

hondarribia.guadalupeko gotorlekua

**Toure-Toure • Vieja Trova Santiaguera • Marcio Faraco • Susana Seivane
J.C. Perez • Black Papa • Amparanoia • Kiko Veneno • Ke Rule • Mikel Urdangarin**

4 sarrera zozketatzen ditugu!!

Egunkaria

Bete eta bidal ezazu txartela

Izen-abizenak:

Helbidea: Herria: Tel.:

EGUNKARIA / MARKETING:

Martin Ugaldé Kultur Parkea

20140 ANDOAIN

Tel.: 943 300 222

A genda

OHARRAK

- ✎ Neska eskaintzen da udaran haurrak zaintzeko. Interesatuak 943 36 43 11 telefonora dei dezakezue.
- ✎ Mahaspildegi elkarteaz bazkide postua salduko nuke. Telf. 943 365231.
- ✎ Chow chow arrazako txakurrak salgai. Pedigriarekin. Harremanetarako deitu 943 362072 telefonora.
- ✎ Belar bolak egiteko belarra eskaintzen da garbitze aldera Kalezarren. Interesatuak deitu 6306 47119 telefonora (Iñaki).
- ✎ Urrezko pultsera bat galdu nuen herrian pasa den maiatzaren 16an. Aurkitu duenak deitu 943 36 38 22 telefonora.
- Emakume bat behar dugu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Deitu eguerdietan 656719442 telefonora.
- Munalurran garaje bateko marra saltzen da. Deitu 943 362424 telefonora.
- Txinparta sagardotegian jendea behar da, ahal bada esperientzia duena, barran edo jangelan lan egiteko. Kurrikulumak Txinpartan utzi.
- Gitarra española bat dut salgai. Admira Juanita marka. Ehun bikoitzekoa eta forraturiko forro beltzarekin. Ia erabili gabea, oso egoera onean dagoena.

Prezioa: 16.000 pezeta. Telf. 678 375 390.

- ✎ Neska bat eskaintzen da udaran haurrak zaintzeko. Interesatuak deitu 943 361115 telefonora.
- ✎ Yamaha XJ 600 motoa daukat salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- ✎ Betaurreko batzuk galdu dira ambulategi inguruan funda gris batekin. Aurkitu dituenak udaletxera eraman ditzala.
- ✎ Urrezko eraztuna galdu nuen hilaren 15ean Kalezarko plazan. Aurkitzen duenari ordainduko zaio. Telf. 943 360643
- ✎ Lonja bat, batez ere trastero bezala erabiltzeko, erosiko genuke. Kalezar auzoan

egon behar du derrigorrez. Tfnoa: 943. 36.14.49. Ordutegia: 13.30etatik 14.30 etara eta 20.00etatik -20.30etara.

- ✎ Txori kaiola haundiak ematen ditugu modu onean. Telf. 943 364354
- ✎ Motozerra elektrikoa salgai. Su-egurra prestatzeko primerakoa. Telf: 943 364354
- ✎ Peugeot 106 ibilgailua salgai. Gasolina. M-8625-XX matrikuladuna, 27.000 km (2 urte). 850.000 pezeta. Interesatuak deitu 943 372607 telefonora arratsaldetan.
- ✎ Pisu bat alokatu nahiko nuke Usurbilen edo bestela pisu konpartitu batean sartu nahiko nuke. Interesatuak deitu 943 793147 telefonora (Josema).



BATZARRA

Eguna: Abuztuaren 28an

Ordua: 11.45etan lehenengo deialdia
12.00etan bigarren deialdia

Tokia: Elkarteko aretoa

Eguneko gai zerrenda

- 1- Aurreko akta onartzea. 2000-07-22 ohiko batzar nagusia.
- 2- 2000-2001 denboraldiaren memoria.
- 3- 2000-2001 denboraldiaren balantzea.
- 4- 2001-2002ko aurrekontua.
- 5- Zuzendaritzaren proposamenak.
- 6- Eskariak eta galderak.



ARRAINDEGIA
PELLO



Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

**MIKEL
IZAGIRRE**

ELEKTRIZATZAIA

Goiz Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95
Mugikorra: 609 068 111

Noaia! Kultur Elkarteko dantza taldea



Noaia! Kultur Elkarteko dantza taldea
kontratazioak 943 36 03 21 telefonoa

Noaia! Kultur Elkarteko kideei dantza egitea gustatu eta hara! dantza taldea osatu dute. Beraz, hemendik aurrera ospakizun berezi baterako edo jaietarako dantzariak behar badituzue, badakizue ze telefonora deitu: 943 36 03 21 zenbakian aurkituko gaituzue.

Datorren alea uztailaren 19an kaleratuko dugu, astebete barru hain zuzen ere. Ale honetan gainera, bi gehigarri argitaratuko ditugu; bata, Santiotako gehigarria eta, bestea, Sanestebanak. Beraz, ale honetan norbait zoriondu nahi baldin baduzu, edo testuren bat kaleratu nahi baduzu, azken eguna uztailaren 16a izango duzu. Barkatu eragozpenak, baina ale hau era honetara kaleratu beharrean aurkituko gara.

Aurten bazkidetza kobraketa abuztuaren hasieran egiten hasiko gara. Ez genuke nahi inor ustekabeen harrapatzerik, beraz, gogoratu. Kontu korronte bidez egiten duzuenok, izango duzue gure berri. Ordainketa eskuz egiten duzuenok, berriz, gure kontu korrontean sartu beharko duzue dirua edo gure egoitzara ekarri. Hala ere, edozein arazo izanez gero, badakizue non gauden. Bazkidetza orain artekoa da.



Aitziber Aranberrik jarraituko du etxez etxeko bazkidetza kanpainarekin

Azken hilabete hauetan geldirik izango dugu etxez etxeko bazkidetza kanpaina. Orain arte Aintzane Aizpurua aritu da lan honetan, baina lanez ganezka dabilenez utzi egin behar izan du eta Aitziber Aranberri eman dio lekukoa. Momentu honetan 525 bazkidek osatzen dugu gure familia hau, eta familia haunditzeko gogoz gabilta, ze arrai! Eta lan honetan, hemenixe argazkian ikusten duzuen pertsona ibiliko da: Aitziber Aranberri. Beraz, badakizue, ireki zuen etxeko atea Noaia! Kultur Elkarteari eta egin zaitetz bazkide. Berehala, jarriko dugu martxan berriz ere etxez etxeko bazkidetza kanpaina, beraz, aspaldi bazabiltza bazkide egin nahian, lasai egon, laster gerturatuko baikara zurera!

XXV. Santixabel bertso paper lehiaketa

1

Mende laurden bat atzera jota
Hara, zer dedan ikusten:
Herriko plazan, dantzaldi haiek
Nola elkartzen gintuzten.
"Egan" egun batean,
"Akelarre" bestean,
Besterik ez zan entzuten;
Arrimatzeko kanta goxoak
Ederki jotzen zituzten.

3

Arrantza lana ezin hobea
Amu eginez gurekin;
Beita goxoak ziran horretan
Mutilok eskean ekin.
Dantzatzeko aldea,
Berdintasun gabea,
Gertatzen zan elkarrekin;
Mutil-aukera, aukera neskek
Gu tokatzen zenarekin.

5

Txit pasiozko kanta ederrak
Dantzatzeko momentuan;
Tarte gabeko besarkadetan
Elkartzen ginan orduan.
Pausoak goxo-goxo,
Konzentratuta oso,
Eta erdi lokartuan;
Sarritan kanta amaitu eta,
hala jarraitzen genduan.

7

Dantza-eskean halere bazan
Makina bat tirabira;
Aleka batzuk kendu ezker
Guregana nor kupida?
Ezetza ta ezetza,
Agur, gure ametsa!
Ezin gabe erretira.
Zenbat alditan egoten ginan
Mukiak jaten begira.

9

Hemen izan dezute
Histori baten kronista;
Hainbat saiamen, hainbat nahigabe,
Iritsi arte konkista.
Zuen sentimenduak,
Badituz ikuituak,
Askorik ez bada piska;
Badakit asko sentiitu dala
Bertako protagonista.

2

Askotan dantza egin-da gero,
Gizonok geure pirpiran;
Onartutako eskeintza hura
Eskertutzeko desiran.
Tabernaren batera,
Pottoka bat hartzera,
Gobidaturik segidan.
gaur eguneko sendi gehienak
Horrelaxe sortu ziran.

4

Prestatzen ginan apain-dotore
Ponpoxoenak bezala;
Lurrin-usainez tapaturikan
Gure usain naturala.
Hamabi metro jiran,
Ondo usaitzen ziran
Neska lortu nahian hala;
Tamalez dakik gurean baino
hobeak bazebiltzala.

6

Izu askoak ere baziran
Dantza lotuan hasita;
Arrimatzeko mugak ederki
Zauzkatena ipinita.
Metro erdi tartean,
Hori gutxienean,
Kontuz, eskuak gerrita!
Behatz punttekin eltzen genien
Besoak luze jarrita.

8

Motza xamarak izaki eta
Hitzegiteko sormena;
Hiru galderek hustutzen zuten
Genedukan almazena.
Nongotarra zara zu?
Zenbat urte dituzu?
Ta nola dezu izena?
Behin gogoan dut guardia zibila
Deitu izan zidatena

10

Garai haietan sasoi ona-ta
Dantzan ez ginan nekatzen;
Maitasunezko tirain azkarrak
bareitzen ginan saiatzen.
Dantzaldia bukatu,
Batzutan etxeratu,
Ta bestetan ezkututzen;
Artasaileko kontuak orain
ez naiz hasiko aitatzen.